



**PUNTUEUS FUNDAZIOAREN AGIRIAK ETA ARGITALPENAK**  
**ITZULTZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO DEIALDIA**

2015eko urtarrilak 16

## AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA .....	3
Hizkuntzak .....	3
2. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LANAK ENTREGATZEKO EPEAK .....	4
3. PREZIOAK.....	4
4. ORDAINKETAK.....	4
5. ESLEIPEN-PROZEDURA.....	5
7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.....	6

## 1. KONTRATUAREN XEDEA

PuntuEUS Fundazioaren agiriak eta idatziak 2015 urtean zehar itzultzeko zerbitzuak kontratatzea da kontratu honen xedea.

Paperean edota formatu digitalean izango dira itzulgaiak, eta testuaz gain, taulak eta grafikoak ere ekar ditzakete.

Xede-testuek, bidenabar, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Oso-osorik jasotzea sorburu-agiri eta -idatzietako testua, baldin eta PuntuEUS Fundazioak berariaz besterik adierazi ez badu.
- Jatorrizko agiri eta argitalpenak fideltasunez eta zuzentasunez ekartzea. Xede hizkuntzaren ezaugarri linguistiko eta gramatikalak direla-eta, alabaina, beharrezkoak diren egokitzapenak egin daitezke. Xede-testuak jatorrizko testua eman behar du, ez itzulpena, ezta itzultzaile bat baino gehiago aritu badira ere.
- Itzuli, berrikusi eta zuzendu egin behar dira testuak. Ezin da, hortaz, era honetako akatsik izan: mekanografiakoak, ortografiakoak, tipografiakoak, hizkuntzakoak, estilistikoak, puntuaziokoak, formatukoak, ulermenekoak, edota aurkezpenekoak. Premiaz lan egin behar izana ez da, inola ere ez, aitzakia izango kalitate txarreko itzulpenak egiteko.
- Sorburu-euskarri berean behar dute xede-testuek: Word, Pdf, Xml, Html, Power-Point, eta abar.

Kontratuzko betebeharrak behar bezala betetzen direla kontrola, egiazta, gainbegira eta ikuska dezake PuntuEUS fundazioak, zeinahi unetan eta edozein bide erabilita. Itzultitako agiri eta argitalpenek eskatutako baldintzak betetzen ez dituztela jotzen badu, PuntuEUS fundazioak testuok berriz itzultzea eska dezake. Bigarren itzulpen horregatik ez du ordaindu beharko, eta hark ezarritako epearen barruan entregatu beharko zaio.

### Hizkuntzak

Nagusiki EUSKARAZ sortutako testuak itzuliko dira eta zerbitzua honako hizkuntzetara eskaintzeko gaitasuna adieraziko da:

- GAZTELANIA
- INGELESA
- FRANTSESA

## **2. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LANAK ENTREGATZEKO EPEAK**

Kontratua 2015eko abenduaren 31ean amaituko da, esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratuaren iraupena, bestetik, ezin izango da luzatu.

Lizitatzailleak, kontratatutako lanak zer epetan entregatuko dituen zehaztu beharko du proposamenean.

## **3. PREZIOAK**

Karaktereko prezioa zein izango de zehaztu beharko du lizitatzailleak proposamenean.

Hizkuntza bikote bakoitzeko ondoko unitate hauen prezioa adierazi beharra dago:

- · Jatorrizko karakterea.
- · Errepikatutako karakterea.

## **4. ORDAINKETAK**

1.- Enpresa kontratistari ordainduko zaion prezioa, kasuan kasu hilabetean eskainitako itzulpen-zerbitzuak enpresa kontratistak eskainitako prezio unitarioei aplikatzean lortutakoa izango da.

Ordainketa enpresa kontratistak, dagokion faktura aurkeztu eta PuntuEUS fundazioak onartu eta gero egingo da.

Fakturak dagokion BEZarekin aurkeztuko dira eta zerga araudian ezarritako gainerako eskakizunak beteko dira.

2.- Hileko faktura bakoitzean kasuan kasu hilabetean eskainitako berariazko zerbitzuen xehetasuna adieraziko da. Bertan ondorengo informazioa aipatuko da, gutxienez:

- Itzuli beharreko dokumentua bidali den data.
- Itzuli beharreko artxiboaren izena.
- Karaktere kopurua (normalak eta errepikatuak)
- Prezioa

3.- Ordainketak faktura jaso eta 60 egunera egingo dira gehienez.

## 5. ESLEIPEN-PROZEDURA

Eskaintzak baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

1. Eskaintza ekonomikoa: gehienez 40 puntu.
2. Eskaintza teknikoa: gehienez 55 puntu.
3. Hobekuntzak: gehienez 5 puntu.

Ebaluazio Batzordeak akta bat egingo du eta bertan adieraziko du, modu arrazoituan, lehiakide bakoitzak zenbat puntu lortu dituen balorazio irizpide bakoitzean eta guztira, eta lehiakideak ordenatu egingo ditu puntu gehien lortu dituenetik gutxien lortu duenera.

Jarraian zehazten dira irizpideak:

### **Eskaintza ekonomikoa: 40 puntu**

Atal honetako eskaintzak honela puntuatuko dira:

Ondoko azpiatal hauetan banatuko dira lehen aipatutako berrogei puntu horiek:

- Jatorrizko karakterea: 25 puntu
- Errepikatutako karakterea: 15 puntu

Gero, ondoko irizpide hauek aplikatuko dira eskaintza bakoitzari zenbat puntu

dagozkion kalkulatzeko:

- Eskaintza ekonomikorik merkeenak puntu gehien jasoko ditu.
- Gainerakoei zenbat puntu dagozkien kalkulatzeko, berriz, ondoko formula hau aplikatuko da:

$$Puntuazioa = \frac{\text{(Eskaintzarik merkeenaren zenbatekoa x Lizitazioko puntuak)}}{\text{Puntuatu beharreko eskaintzaren zenbatekoa}}$$

### **Eskaintza teknikoa: 55 puntu**

Honakoak hartuko dira kontuan:

- Lan-taldearen kalitatea (20 puntu). Kontratura atxikitako pertsonen izenak zehaztuko dira. Era berean, lizitatzailleak dituen giza bitartekoen zerrenda aurkeztuko da, kontratura atxikitako pertsonak ordezkatu edo aldatu behar izanez gero erabiltzeko. Horrez gain, Proiektu Buruaren izena adieraziko da. Bera izango da PuntuEUS fundazioarekin harremanez arduratzeko pertsona, zerbitzua gauzatzeari dagokionez. Bere curriculum vitae-a aurkeztu beharko da, titulazioak eta esperientzia adieraziz.

- Gaitasun teknologikoa (15 puntu). Hizkuntzen kudeaketarako teknologia, OLI tresnen erabilera, eta dokumentuen formatuen aniztasuna baloratuko dira. Horrez gain kontratu honetan sortutako itzulpen memoriak bezeroaren esku uztea baloratuko da.
- Kalitate ziurtagiriak (10 puntu). Kontratu honen xedearekin lotutako kalitate ziurtagiriak baloratuko dira.
- Euskararen kalitate ziurtagiriak (5 puntu). Lizitatzailleak Bai Euskarari ziurtagiria eta Bikain ziurtagiria izatea baloratuko da.
- EUS domeinuaren erabilera (5 puntu). Lizitatzaillearen webgune nagusiaren domeinu-izena .EUS izatea.

### **Hobekuntzak: 5 puntu**

Kontratuaren helburuarekin lotuta dauden bestelakoak sartu ahalko dira. Edozein kasutan, hobekuntza horiek ez dute prezioa garestituko.

## **7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Parte hartzeko eskaintzak posta elektronikoz aurkeztuko dira honako helbidean: [info@domeinuak.eus](mailto:info@domeinuak.eus) 2015eko urtarrilaren 30a baino lehen.